

Norabide biko harremana

Euskal jatorriko herritar ugarik parte hartu zuen Kubako independentziaren aldeko gerretan, kolonoen aldean zein independentistenean; askapen prozesuak, berriz, eragin argia izan zuen euskal abertzaletasunean.

Gotzon Hermsilla

Luze jo zuen Espainiako uztairik askatzeko Kubak egindako borroka. Lehenengo independentzia gerrak, Hamar Urteko Gerra edo Gerra Handia izendatu dutenak, 1868tik 1878ra iraun zuen, eta mugimendu independentistaren porrotarekin amaitu zen. Horren ostean, hamazazpi urteko aro bat zabaldu zen, Jose Martik «su-eten emankorra» deitu zuena; ez zen erabateko bake garaia izan, tarte horretan hainbat altxamendu eta istilu izan baitziren. Eta, azkenik, 1895etik 1898rako gerra egon zen, Espainiaren agintearen amaiera ekarri zuena.

Prozesu luze horretan, ugariak izan ziren Kuba eta Euskal Herriaren arteko loturak. Ugariak, eta mota askotakoak. Kuba Espainiaren menpeko mantendu nahi izan zuten enpresaburu, politikari eta militarren artean euskal herritar asko egon ziren. Euskaldun anitz kubatarren kontra borrokatu ziren armak eskuan. Batzuk, behartuta; beste batzuk, berriz, beren burua boluntario aurkeztuta. Baina Kuba askatuaren alde borrokatu zirenen artean ere egon zen euskal herritarrik eta, batez ere, euskal jatorriko kubatar ugari.

Bi herrien arteko lotura ez zen izan norabide bakarrekoa. Euskal herritarrek era batera edo bestera Kubaren askatze prozesuan esku hartu zuten, eta, era berean, Kuban gertaturikoak eragin handia izan zuen Euskal Herrian. Espainiaren aldekoak sutu, mindu eta asaldatu zituen Kuba galtzeak: orduan sortzen ari zen euskal nazionalismoarentzat, aldiz, akulu eta ispilu izan zen Kubako prozesua.

Eragin guztietan mingotsena, baina, Espainiako armadak indarrez erreklutatu eta Kubara bidali zituen milaka euskal gazteek eta horien familiek pairatu zuten. Askok bizia galdu zuten Kubako lurretan. Elbarri itzuli zirenek



Euskal mikelteen talde bat Habanan, 1888an.

miseriaz beteriko etorkizuna zuten zain.

Kapitain jeneralak

Kubaren menpekotasuna betikotzeko lan egin zutenen artean euskal herritar asko egon zen, eta ardura garrantziatsuak izan zituztenak edo beren bortizkeriagatik nabarmendu zirenak ere ez ziren gutxi izan. Lehenengo matxinada gertatu zenean, Francisco Lersundi (1817-1874) zen Kubako kapitain jenerala, eta horren bigarrena, berriz, Blas de Villate, Balmasedako kondea (1824-1882). Debako (Gipuzkoa) familia ospetsu baten semea zen lehenengoa; Sestaon (Bizkaia) jaioa bigarrena. Eta biak ala biak altxamendu independentista zapaltzeko erabilitako bortizkeria eta ankerkeriagatik nabarmendu ziren.

Blas de Villate ere iritsi zen kapitain jeneral izatera, hots, Espainiak Kuban zeukan agintari gorena. 1895eko gerrak iraun zuen bitartean, Euskal Herrian jaiotako beste militar bat aritu zen ardura horretan, Ramon Blanco donostiarra (1833-1906).

Euskal jatorriko agintari eta militar batzuek zuzen-zuzenean

parte hartu zuten kubatarren kontrako errepresioan. Beste batzuek, berriz, lan ezkutuagoa egin zuten. Julian Zulueta arabarra esklabo trafikatzaileria izan zen, aberastasun handiak pilatu zituen Kuban eta Espainiako burgesiak uhartean zituen interesen aldeko defentsan jardun zuen.

Euskal herritar askok lan egin zuten Kubaren menpekotasuna betikotzeko

Han jaiotako euskal jatorriko gehienek independentziaren alde egin zuten

Berdin egin zuen Manuel Calvo Portugaleten (Bizkaia) jaiotako merkataria: ezkutuan aritu bazen ere, Kuban interes ekonomikoak zituen oligarkiaren presio taldeko burua izan zen, eta, esaterako, diruz sustatu zituen zenbait agerkari eta aldizkari, Kubaren independentzia eta esklabismoaren abolizioa borrokatzea helburu zutenak.

Ramon Maria Araiztegi Espainiako Gobernuak idazkariak Kubako unibertsitate ikasketak mugatzen zituen dekretua erredaktatu zuen. Hitzazurrean, Araiztegi idatzita utzi zuen irakaskuntzaren helburuak «ahal den neurrian datozen belaunaldiak espainiaritzea» izan behar zuela, «Antilletan Espainiaren nagusitasuna bermatzeko». Mende eta erdi igaro ostean, ezin da esan hitz horiek gaurkotatzea galdu dutenik.

Tertzioak

Espainiako armadari egokitu zitzaion matxinada zapaltzeko egingizuna. Lehenengo gerraren garaian, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko diputazioek ere parte hartu zuten horretan, eta boluntarioz osaturiko tertzioak antolatu eta bidali zituzten Kubara, *Tercios Vascongados* izenaz ezagutzen zirenak. Teorian, eta foruen arabera, probintziotako erakundeak ez zeuden behartuta horrelakorik egitera, baina garai hartan foruak mehatxupean zeuden, Espainiatik errezele handiz ikusten zituzten «euskaldunen pribilegiotzat» jotzen zituztenak, eta susmo



Kubako Armada Askatzaileko kideak.

txar horiek uxatu nahian, aurrea hartu eta tertzioak antolatzea erabaki zuten hiru diputazioek. Nafarroak ere 400 gizon bidali zituen Kubara. Orotara, Euskal Herriko 1.500 soldadu inguru aritu ziren borrokan.

1895eko gerra piztu zenean, berriz, galdurik zeuden foruak, eta euskal gazteak ere erreklutatu zituzten gerrara bidaltzeko, erreklutatzea saihesteko beste diru ez zeukatenak behintzat. Kubara bidali behar zituzten gazte batzuek bat-bateko protestaldiak egin zituzten, 1895eko abuztuan Tafallako tren geltokian gertatutakoak frogatzen duenez. Beste askok erbestera bidea hartu zuten, Espainiako armadan zerbitzatetik ihes egin nahian.

Penintsulatik iritsitako tropak ez ziren iraultzaren kontra borrokatu ziren bakarrak. Kuban bizi ziren espainiar askok miliziak osatu zituzten matxinatuen aurka egiteko. Euskaldunek ere bai: *Guamutasko txapelgorriak* izenaz ezagutzen zen batailoia euskal jatorriko herritarrek osatzen zuten gehienbat, eta jo eta su aritu ziren independentisten kontra.